

*Prensa oharra*

*Elkartasun Zentimoak programaren elkartasun kausa berria*

## **EROSKI HAUR MINBIZIAREN AURKAKO BORROKAN LAGUNTZEN ETA FAMILIEI BABESA EMATEN**

- Minbizia duten Haurren Gurasoen Espainiako Federazioari laguntzen dihardu, haur minbiziaren aurkako borrokan
- *Elkartasun Zentimoak* EROSKIren urteroko programa bat da, bezeroek dohaintzak egin ditzaketena hautaturiko gizarteko zenbait kausaren alde; kausa horiek hautatzeko, aintzat hatzen da 3.500 bazkide-bezero baino gehiagoren iritzia

Elorrio, 2021eko otsailaren 4a.- [EROSKI](#)k martxan jarri du *Elkartasun Zentimoak* programaren barnean, beste elkartasun kausa bat haur minbizia borrokatzen laguntzeko eta horien gurasoak babesteko nola eta [Minbizi duten Haurren Gurasoen Espainiako Federazioarekin elkarlanean](#) arituta. Kanpaina hau otsailaren 24ra arte luzatuko da, eta helburua da minbizia duten adingabeen 7.000 familiari baino gehiagori laguntzea, federazioa osatzen duten tokian tokiko elkarteetan daudenak. Babes honekin erakundeek beren jarduera indartu ahalko dute familia gehiagorengana iristeko eta zerbitzu egonkorragoak eta iraunkorragoak emateko.

*"Espainian urteko 1.100 minbizia kasu atzematen dira 14 urte artekoetan, eta 400 kasu inguru 14-18 urtekoetan. COVID-19a dela-eta osasun sistema egokitu egin behar izan denez, adingabe askoren diagnostikoa atzeratzen ari da, eta familiek ezin izan dute jaso behar zuten babes guztia. EROSKIIn aspalditik dihardugu minbizia duten haurren hurbileneko guraso elkartei laguntzen; horregatik, gure bezeroen elkartasuna ere bideratu nahi izan dugu kausa horren alde. Elkartasun Zentimoen bitartez, Gurasoen Federazioa babesten dugu, hura tokian-tokian eta eskualdez eskualde osatzen duten elkarte guztietara iristeko, eta, hala, adingabeei eta familiei ematen zaien laguntza zuzenean indartu eta zabaltzeko", azaldu du EROSKIren Osasun eta Iraunkortasun arloko zuzendariak, Alejandro Martinez Berriochoak.*

*"Kasu horietan direnek, tratamendu bortitz bat jasaten dute, eta bai haurrek eta bai familiek una zailak pasatzen dituzte. Horregatik, beharrezkoa da ekintzak garatzea haur gaixoaren gorabehera emozionalak eta garapenean izan dezakeen etena*

---

### **EROSKI**

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria  
KRISTIAN PRIETO

Tel: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

### **EROSKI – PRENTSA BULEGOA**

#### **CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL  
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)

*minimizatzeko. EROSKIren eta bezero guztien babesa izatea ezinbestekoa da funtsezko eginkizuna gauzaten jarraitzeko alor horretan, nola eta talde multidiziplinarrek (psikologo, gizarte langile, boluntario) eraturako programekin eta ospitaleetako mediku asistentzialen taldearekin elkarlanean", esan du Juan Antonio Rocak, Minbizia duten Haurren Gurasoen Espainiako Federazioko presidentek.*

### **Elkartasun Zentimoak, kausa sozial askotarikoei laguntzeko**

EROSKIk *Elkartasun Zentimoen* programa iraunkorra estreinatu zuen azaroaren 5ean, eta 840.000 euro baino gehiago bideratu ditu orain arte Elikagaien Bankuetara, produktuak emateko familia zaugarriari, UNICEFi, Mugarik Gabeko Medikuei eta ACNURi garapen bidean diren haurrei txertatzen laguntzeko.

EROSKIren bezeroek dohaintza txiki bat egin dezakete aldi bakoitzean dagoen ongitzako kausarako erosketa txartelarekin edo sakelakoarekin ordaintzen duten aldiro. Ekarpena, beti borondatezkoa eta isilpekoa, 10 zentimoko kopuru txiki sinboliko bat da 5-30 euroko erosketetan eta 20 zentimokoa 30 eurotik gorakoetan.

Lagundutako erakundeak aldian behin aldatu egiten dira, gizartean aldi bakoitzean nolako beharrak dauden eta 3.500 bazkide-bezerok baino gehiagok nolako kezak helarazten dituzten. 2021ean, besteak beste egongo dira haurren alde ari direnak, bazterketa arriskuan direnei laguntzen dihardutenak, minbizia borrokatzen dutenak, desgaitasunak dituztenei laguntzen dietenak, gaixotasun arraroen aurka dihardutenak eta ingurumenaren alde dihardutenak.

*"Elkartasun Zentimoak izeneko programa tresna eraginkorra da gure bezeroek modu errazean bidera dezaketelako bere konpromisoa gizarteko kausa askotarikoen alde. Programa iraunkor bat da, eta haren bitartez alor askotako erakundeei lagunduko diegu, betiere norabide jakin batean: gehien behar dutenei laguntzea", azaldu du Osasun eta Iraunkortasun arloko zuzendariak.*

Hasieratik ari da EROSKI gizarte ekintza askotan, bereziki bizi ohitura osasungarrien promozioan, kontsumitzailearen hezkuntzan, ingurumenaren defentsan eta elkartasunean. 2020an, EROSKIk 7 milioi euro baino gehiago eman dizkie janaritan, lehen mailako produktutan, eta ekarpen ekonomikotan askotariko gizarte erakundeei, COVID-19ak eragindako gizarte krisiak markatutako urte honetan.

### **Minbizia duten Haurren Gurasoen Espainiako Federazioari buruz**

22 elkartek osatzen dute Minbizia duten Haurren Gurasoen Espainiako Federazioa, eta herrialde osoan dihardute diagnostikoa jaso orduko profesional talde batekin

---

#### **EROSKI**

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria  
KRISTIAN PRIETO

Tel: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

#### **EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL  
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)

gurasoei eta adingabeei babesa ematen. Psikologia aldetik, banakako eta taldekako saio terapeutikoei esker, lanketa egiten da haur minbizia duten familiek aurre egin diezaioten tratamenduak dirauen artean beren bizitzan datozkien aldaketei gaixotasunaren fase guztietan, dolua barne. Alde sozialetik, berriz, dauden laguntzen gaineko informazioa emanez, izapideetan lagunduz, material ortoprotesikoaren mailegua kudeatuz eta abar. Heziketa aldetik, laguntza emanez eskolaz kanpo, etxean eta elkarteetan, baita ospitaleetan beharrezkoa denean ere.

---

**EROSKI**

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria  
KRISTIAN PRIETO

Tel: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

**EROSKI – PRENTSA BULEGOA**  
**CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL  
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)